

## 2025EKO IRAILAREN 22KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hogeita bian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu dira 2025eko uztailaren 28an eta irailaren 9an egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

### II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 70 zenbakidun zerrenda, HOGEITA HEMERETZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA euro ETA BERROGEITA HAMABI zentimokoa (39.771,52 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### III.- ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEARI 2025EKO UDAL EKARPENA.-

Enirio Aralar mankomunitateak 2025eko Udal ekarpenaren proposamena egin digu.

Lazkaoko Udalari dagokion 2025 urteko ekarpena 17.850,73 €-koa da.

Tokiko gobernu-batzarrak aho batez onartu ditu ekarpen hauek.

### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 23-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea abuztuaren 11n heriotzagatik.
- 25-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea irailaren 9an, astean 2 orduz, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 90ekoa izango da.

#### Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: garraiorako, uztaileko 300 € eta abuzturako beste 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

#### Gazte laguntzaileentzat beka.-

Helene Zeberio Agirrerri 2025eko uztailearen 14an hasi eta hiru astez, Arushako (Tanzania) haurtzaindegietan kooperatzaile bezala egon ondoren eta faktura bidez gastua justifikatu duenez, dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da, 1.000 € ematea.

#### Joxemiel Barandiaran Udal kirodegiko bazkietza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-23-06 zenbakidun esped.: kirodegiko urteko bazkietza familiarraren bonua ordaintzeko 295,50 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-07 zenbakidun esped.: kirodegiko urteko bazkietza familiarraren bonua ordaintzeko 221,62 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75 da.
- 25-23-08 zenbakidun esped.:
  - o Kirodegiko urteko bazkietza familiarraren bonua ordaintzeko 295,50 €-ko dirulaguntza ematea.
  - o Bi semeen Kirolanitzan uda ikastaroa ordaintzeko 300 €-ko (150 € x 2) dirulaguntza ematea.

Eskatutakoaren % 100 da.

- 25-23-09 zenbakidun esped.: kirodegiko urteko pentsiodun bazkietza familiarra ordaintzeko 215,20 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-10 zenbakidun esped.: kirodegiko urteko bakarkako bazkietza ordaintzeko 146,80 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

- 25-23-11 zenbakidun esped.: semearen ludotekako kuota ordaintzeko 94,30 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

#### Iparra Hegoa programa.-

2025. urteko Iparra - Hegoa Lankidetzeta Programari dagokion dirua modu honetan banatzea, Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenaren aurrean:

1. **SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO ELKARTEA (SMH).** Aita Mari 2025, Mediterraneo erdialdeko ibilbidean ihesi doazen migratzaileak eta errefuxiatuak erreskatatzeko proiektua (mediterraneo itsasoa). **2.500€.**
2. **ONG TAUPADAK.** San Ignacio de Moxoseko ur kooperatibaren azpiegitura hobetzea (Amazonas). **3.250€.**
3. **SINERGOS ELKARTEA.** Eguzki-energiar funtzionatzen duen putzu bat eraikitzea Candjandine komunitatearentzat (Ginea). **4.000€.**
4. **AMAP ELKARTEA.** Kalitatezko hezkuntzarako eskubidea indartzea (Uganda) **3.250€.**
5. **BONAL ELKARTEA.** Elsie Gache Villageko haur ezinduentzako zentroan higie eta osasun baldintzak hobetzea (Filipinak). **2.500€.**
6. **HERRIAK ELKARLANEAN.** Marbialeko eskola politeknikoaren 2. fasea (Haiti). **3.000€.**
7. **LANKIDETZARAKO INGENERITZA.** Giza eskubideen hedapena, 3. eta 4. faseko ur hornikuntza eta emakume helduen alfabetatze programa (Kongo). **1.500 €.**

#### Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza – Rwanda.-

Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritzari, Rwandarwejoko umetxokoan, Muganzako eskolan hiru ikasgela berri eraiki eta Masakako eskolako hainbat gela txukuntzeko egitasmorako, 16.000 €-ko dirulaguntza ematea.

#### V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Segundo Dominguezi.-

Lazkaoko herritarrek eta Euskal Aker Taldeak Unai Dominguezen omenez 2024ko irailaren 7an ekitaldi ezberdinez osatutako eguna antolatzeagatik, 1.000 €-ko dirulaguntza ematea erabaki da Segundo Dominguezi, Kultura Batzordeburuak proposatuta.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

#### Oin Arin Dantza Taldeari.-

Oin Arin Dantza Taldearen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 12.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den % 40, hau da 4.800 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.

#### Gerriko Kultur Elkarteari.-

Irailaren 11, 12, 13 eta 14an Lazkaoko Euskadi plazan antolatutako garagardo azokarako alokatutako txosnaren alokairua ordaintzeko 1.343,10 €-ko dirulaguntza ematea.

#### VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko erosketa bonuen 2025eko udazkeneko kanpaina.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko udazkeneko plangintzaren barnean erosketa bonuen kanpaina antolatzeko proposamena egin du Ekonomia Sustapen batzordeak.

Proposamenari erantsitako kanpainaren deialdiak honakoa dio:

**“LAZKAOKO MERKATARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREA SUSPERTZEKO**

## **EROSKETA BONUEN 2025EKO UDAZKENEKO KANPAINA**

### *1. artikulua. Xedea.*

Erosketa bonuen kanpaina honek dirulaguntza izaera du eta egungo merkataritza ohituren aldaketa dela eta, Lazkaoko merkataritza eta zerbitzuetako jarduera berreskuratzeko, erosketak herrian bertan egitea sustatuko duen eta herriko familien ekonomia lagunduko duen bonu sistema sortzea du helburu.

Kanpaina honek bonuak jarriko ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta herriko eta inguruko biztanleei aukera emango die

Hauek dira programaren helburuak:

- Herriko establezimenduetan salerosketak piztea, herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.
- Lazkaoko familien ekonomia laguntzea.
- Orokorrean herrian merkataritza bultzatzea.

### *2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Kanpaina honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 20.000 eurokoa izango da, eta hori 2025. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.471.02.433.01 zenbakidun partida, «Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko».

### *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko irailaren 25ean onartutakoak.

### *4. artikulua. Bonuen kopurua eta balioa.*

Lazkaoko Udalak 2.000 bonu jarriko ditu salgai 2025eko udazkeneko kanpaina honetan.

Bonu bakoitzak 30 euroko prezioa izango du eta aldiz 40 euroko balioa, hau da, 40 euroko erosketa ahalmena emango du.

Bonuak erosteko unean bertan ordaindu beharko dira eta ordainketa sistema banku-txartela izango da.

### *5. artikulua. Programaren funtzionamendurako ezaugarriak.*

- a) Bonuak 5 euroko 8 txarteletan frakzionatuta banatuko dira, eta frakzio edo txartel bakoitza zatiezina izango da: erosketa bakoitzean gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

- b) Frakzio edo txartel hauetatik 3 edozein saltokitan erabili ahal izango dira, eta beste 5 txartelak janari dendetan izan ezik, gainontzeko guztietan.
- c) Bonuak ezin dira dirutan trukatu eta ez da inolaz ere eskudirurik itzuliko.
- d) Herritar bakoitzak 3 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zk. jasoko da salmenta unean.

Pertsona batek beste baten izenean bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, gehienez ere hiru pertsonen ordezkartzan.

- e) Herritarrek programan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango Lazkaon erroldatuta egotea.

#### *6. artikulua. Bonuen salmenta.*

Bonuen salmenta udaletxean egingo da, bertako harrera ordutegian, kanpainaren lehen egunean izan ezik, salmenta arratsaldean plazan egin ahal izango delarik.

#### *7. artikulua. Kanpainaren iraupena.*

Kanpaina 2025eko urriaren 23an hasiko da eta azaroaren 30ean amaituko da."

### VII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat nekazal ekoizlek jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien ekoizleen hirugarren ordainketa egitea:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
IKER SUKIA MESAS	490 €	210,00 €
IKER SUKIA MESAS	215 €	92,14 €
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	280 €	120,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>985 €</b>	<b>422,14 €</b>

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.